



BARNE EBAZPENA, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendariarena, Hezkuntza Sailaren herri ikastetxeetan eskola eremuan euskararen erabilera bultzatzeko 2026-2027 ikasturterako Euskarartea zuzkidura-deialdia zabaltzen duena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoak, honela dio bere 17. artikuluan: «Jaurlaritzak ikasleei nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskara-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzabideetan eta arduralaritzako ihardun eta agirietan euskara agizko adierazpide eginez». Honen haritik, NOLEGA izeneko ekimen sorta moldatu zuen Hezkuntza Sailak 1984tik aurrera. Atal horrek, urte hauetan guztietan eta gaur egun arte, etenik gabe hainbat ekimen bideratu, antolatu edota diruz lagundu du. Ahozko erabilera areagotzeari begira, deialdi sorta zabala eskaini izan du urtero. 2013-14 ikasturtetik aurrera, ikastetxe gisa arlo honi modu bateratuan erantzungo dion ekimena proposatu zuen. Azken urteotako Nolega Deialdiak izan duen bilakaeraren ondorioz, eta euskararen erabilera areagotzeaz gain eskolak euskal kulturaren transmisioan duen indar eragilea azpimarratzeko EUSKARARTEA izena eman diogu. Deialdi honetan aurrekoan bildutako ildo berezituak dira ardatz: Euskal kultura eta bere transmisioa (antzerkigintza, bertsogintza, kantagintza, bideogintza, podcastak, kontalaritza eta irratigintza); Euskararen erabilera edota atxikimendua sustatzeko jarduerak; eta Ikastetxeen arteko gazte- eta haur-trukeak.

Haur Hezkuntzako 75/2023 Curriculum Dekretuak, Batxilergoko 76/2023 Dekretuak eta Oinarrizko Hezkuntzako 77/2023 Curriculum Dekretuak ezarri dute, aurrekoen bide beretik, ikasle guztiek hizkuntza arloko funtsezko konpetentzia guztiak eskuratzea dela xede nagusia. Zortzi funtsezko konpetentzia horien artean, hizkuntzari lotutakoak ditugu hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna. Ikasleei bi konpetentzia hauek eskuratzen laguntzea funtsezkoa da, horrek ahalbidetuko die lako gainerako konpetentziak ere garatzea. Gainera, hiru dekretuetan ezartzen da ikastetxean bertan garatzen diren jardueretan eta kanpo-proiektuak jardueretan adierazpidea euskara izatea sustatu eta ziurtatuko dela.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 Legean aitortzen da «euskara izan behar dela, jeneralean, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretarako eta kanpo-proiektuak jardueretako adierazpidea», baita hezkuntza-komunitate osoarena dela horretarako erantzukizuna ere. Bestalde, arau horretan jasotzen da Hezkuntza Sailak euskararen erabilera indartuko duela, «eskola-ekintzan hizkuntza horren ohiko erabilera normalizatzeko xedez» eta «arreta berezia eskainiko zaiola euskal kultura ezagutzeari» ere.

Horretarako, ez da nahikoa ohiko klase emankizunetan lantzen diren gaitasunak jorratzea. Gelako metodologia erabat paradigma komunikatiboetan kokatzeaz gain, eskola esparruko beste hainbat ekimen osagarri ere eskaini beharko dizkio ikasleari. Batez ere, ikasleengan hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jarrerakotasuna bermatu nahi da. Horretarako, eskola-giroan hizkuntza lantzeko saiakerak biziak eta naturalak egiten dira; saiakerok babestea eta sustatzea du helburu deialdi honek, ikaslearen bizipenetan, adierazpenetan eta irudikapenetan euskara txertatuz.

Beraz, orain artekoari jarraikiz, bidera daitezkeen gainerako ekintzei kalterik egin

gabe eta beste aurrerapauso bat emanez, 2026-2027 deialdia egitea erabaki da.

Deialdi honetan aplikagarri izango da ondoko araudia: 381/2024 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa, 196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko dena; eta salbuespenez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen 20/2023 Legearen 30. artikulua, eta zehaztu ez den horretarako, 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio. Prozedura Erkidearena eta 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Barne ebazpen honen xedea da, 2026-2027 ikasturtean, herri ikastetxeetako eskola eremuan euskararen erabilera bultzatzeko asmoz diru-zuzkidura deialdia eta oinarri-arauak argitara ematea.

2. artikulua.– Zein ekintza lagunduko diren eta zeintzuk diren baldintzak.

Ezinbestekoa izango da antolatutako jardueren arduraduna ikastetxea bera izatea eta, horren izenean, ikastetxeko zuzendaria.

Laguntza deialdi honen bidez, ikasgela barruan zein kanpoan burutzekoak diren ondoko jarduerak hauek lagunduko dira diruz:

a) Euskal kultura eta bere transmisioa.

1- Ikastetxeetan euskal kultura eta bere transmisioa bultzatzea ikasgela barruan zein kanpoan. Jarduera hauen bitartez, besteak beste, euskal herri kulturari eta kultura garaikideari lotzen zaizkion kultur eta komunikazio adierazpideak sustatuko dira, bereziki, ahoz emanak: antzerkigintza, bertsogintza, kantagintza, kontalaritza... eta horrez gainera, tradizioan oinarritutako edo egungo diziplinarteko kultur adierazpideak (dantza, zinema, film laburra, bideo-sorkuntza, podcasta, irratia edo telebista, literatura eta ilustrazio sorkuntza...).

2- Ikastetxearen barruan edota arlo akademikotik kanpo, euskaraz bizitzeko eta euskal kulturaz jabetzeko helburuarekin prestatutako kultur adierazpideak (jarduera bere osotasunean lagunduko da diruz: sortze eta garapen faseak, bibliografia, emanaldia edo jarduera, atrezzoak, jantziak, ikus-entzunezko baliabideak, euskarri digitalak...).

b) Euskararen erabilera edota atxikimendua sustatzeko jarduerak. Kontzientzia soziolinguistikoan eragiteko ikasgelan zein ikasgelaz kanpo hezkuntza komunitatearekin lankidetzan egiten diren jarduerak lagunduko dira. Izan ere, jarduerak antolatzerakoan hezkuntza-komunitateko ikasle, irakasle, hezitzaile, guraso etab. hartuko dira kontuan.

1- Euskararekiko atxikimendua eta erabilera indartzeko hitzaldiak, tailerrak, mintegiak ikastaro laburrak...

2- Soziolinguistikan oinarritutako praktika komunitarioak, Euskaraldia edo Korrikaren prestaketa prozesuak, ikasgelako edo handik kanpoko azterketa edo neurketa soziolinguistikoak...

Atal honen barruan ez dira sartuko, bestalde, berariazko laguntza bidea duten irakasleen prestakuntza edo berrikuntza-jarduerak: IRALE, PREST GARA...

c) Ikastetxeen arteko gazte- eta haur-trukeak (ikastetxeen arteko binakako loturak). Euskal kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea helburu duten ikastetxeen arteko truke-irteerak.

Kultura molde, euskal hizkera zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzeko egiten diren ikastetxe-trukeak izango dira lagunduak. Truke orok 2 gaueko iraupena izan behar du, gutxienez. Normalean bi egonaldi izango dira, truke-kide bakoitzaren lekuan bana, alegia. Halere, salbuespen bezala, egonaldi bakarra egin ahal izango da, adostutako aterpe batean edo ikastetxe bakar baten herrian, bi ikastetxeen arteko distantziagatik edo beste arrazoiren bat dela medio.

Trukea EAEko ikastetxeen artekoa denean, ikastetxe biek bete behar dute eskabidea. Trukea Nafarroako edo Iparraldeko ikastetxe batekin egin nahi bada, berriz, EAEkoak soilik egingo du eskabidea, eta dirulaguntza osoaren jasotzailea ere bera izango da.

3. artikulua.– Jarduerak burutzeko epea.

Zuzkidura-deialdi honek 2026-2027 ikasturtean burutuko diren egitasmoak baino ez ditu kontuan hartuko. Deialdi honen bidez finantzatutako egitasmoak justifikatzeko azken eguna 2027ko ekainaren 15a izango da; hori dela eta, egitasmo horiek data hori baino lehen eskaini, eman, aurkeztu edota gauzatuko dira.

4. artikulua.– Diru-baliabideak.

Zuzkidura-deialdi honetarako erabiliko den diru-kopurua 400.544,00 eurokoa da.

5. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1. Deialdi honen babesean ematen diren zuzkidurak bateragarriak dira edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako eman ditzaketenekin. Hala ere, zuzkidura honen kopuruak ez du inola ere, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko. Kasu horretan, deialdi honen bidez emandako kopurua dagokion zenbatekora murriztuko da.

2. Deialdi honetara aurkezten diren ikastetxeek, dirulaguntzagai diren jarduerak egiteko beste erakunde publiko edo pribatutatik laguntzarik eskatuta badute, edota halakorik jasoak badira, horren azalpena egin beharko dute, berariaz, eskabide-orrian, dagokion atalean.

6. artikulua.– Onuradunak

Deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoei zuzenduta dago, hain zuzen ere, ondoko mailak eskaintzen dituztenei: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

7. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte deialdi honetako laguntzak eskuratu nahi dituztenek, besteak beste, honako hauek:

a) Dirulaguntzak oinarri duen helburua lortzea, eta horretarako eskabidean

zehaztutako helburuak burutzea.

b) Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta dirulaguntza deialdiak dituen jarduerak bete direla eta helburuak lortu direla ziurtatzea.

c) Egin daitezkeen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio guztia aurkeztuz. Deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzaren inguruan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Euskal Herriko Kontu Epaitegiak bere egitekoak betez eska dezan edozein informazio eskaintzera behartuta dago laguntza-jasotzailea.

d) Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, deialdiaren bidez esleitutako dirulaguntza eskuratu aurretik.

e) Jasotako dirulaguntza hartu dela egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eramanez izateko.

f) Dirulaguntzei buruzko Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legearen 27. artikuluan ezarritako betetzea, alegia, dirulaguntzaren bidez burutzen diren jardueren iragarki eta publizitatean ekimenak diruz lagunduak direla aipatzea.

g) Jasotako dirulaguntza itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 20/2023 Legeak 36. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.

2. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenari jarraikiz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

3. Ikasleen aniztasuna aitortzea eta errespetatzea, eta gaitasun diferentia duten ikasleen beharretara egokitzeko aukerak ematea, askotariko errealitateak kontuan hartuta, 77/2023 eta 237/2015 Dekretuek arautzen dutenez.

4. Jasotako zuzkidura justifikatzeko unean, ikastetxeak “diru-justifikazio orria” izeneko dokumentua bete beharko du, “Herri Ikastetxeak – Deialdiak” atarian. Bertan, ikastetxeak gauzatutako ekintzen berri eman beharko du.

8. artikulua.– Eskabidea eta formularioak aurkezteko prozedura.

1. Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, “Herri-ikastetxeak – Deialdiak” atalean, honako helbide elektronikoan:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/euskarartea-2026>

Eskabidea egiteko azalpenak, eskabide-orriak eta gainerako agiriak ere helbide horretan egongo dira eskuragai.

2. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek **irailaren 1etik 30era arteko epea** izango dute eskabideak aurkezteko. Horretarako bereziki prestatutako eskabide normalizatuetan bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

3. Ikastetxe bakoitzak eskabide-orri bakar bat aurkeztu ahal izango du deialdi honetara. Eskabide-orri bat baino gehiago aurkeztu badira, beti ere erregistratuta izan den azken eskabide-orria izango da balioztatua.

4. Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatzen bada, honen berri emango zaio eskatzaileari, eta 10 eguneko epea emango zaio, ondo osa dezan. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu, ikastetxeak bere eskabideari uko egin diola ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Eskabidea egin ondorenko izapideak helbide honetan egin beharko dira:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/nire-eskabideak>

6. Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak onartu direla adierazten du.

9. artikulua.– Deialdiaren organo kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Hezkuntza Saileko Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuari dagokio.

10. artikulua.– Diru-zuzkidurak esleitzeko prozedura.

1. Deialdiko baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztiei esleitzeko zaie zuzkidura.

2. Gehienez 3.000 euroko zuzkidura esleitzeko da ikastetxeko.

3. Eskabideak aztertu eta ondorengo irizpideak kontuan hartuta, zuzkidura-proposamenak egiteko ikastetxe bakoitzari puntuazio bat esleitzeko zaio. Deialdiak duen diru-baliabidea puntuazio horien arabera banatuko da.

Puntuazioa – OP1+OP2+OP3 = 100 p. gehienez			
Jarduerak	Puntuak atalka	Gehieneko puntuak	Puntuazio osoaren gainerako balioa
OP1 – EKT Euskal kultura eta bere transmisioa.		100	% 40
Euskal kultura eta bere transmisioa lantzeko ikastetxe barruko zein kanpoko jarduerak honela baloratuko dira:			
Helburuari erantzuten dioten ekimenak eta ikastetxearen Hizkuntza Proiektuarekin koherentzia dutenak	Ekimeneko 5 p. Gehienez 15 p.	40	
Helburuari erantzuten dioten ekimenak eta ikasgelako jardun pedagogikoaren arteko lotura maila	Ekimeneko 5 p. Gehienez 15 p.		
Ekimen berritzaileak Hizkuntza Proiektuarekin lotuta eta gelako jardun pedagogikoarekin	Ekimeneko 5 p. Gehienez 10 p.		
Parte hartzen duten gelen kopurua ikastetxearen portzentajearekiko. Gehienez 25 puntu	0 ≥ %25 10 p. %26 ≥ %50 15 p. %51 ≥ %100 25 p.	25	

Parte hartzen duten ikasleen kopurua ikastetxearen portzentajearekiko. Gehienez 25 puntu.	0 ≥ %25 10 p. %26 ≥ %50 15 p. %51 ≥ %100 25 p.	25	
Saioaren jendeartekotzea	10 p. geh.		
Ikastetxeko ikasleen aurrean	2,5		
Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean	5,0		
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean	7,5	10	
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean	10		
OP2 – Euskararen erabilera edo atxikimendua lantzeko jarduerak		100	
Helburuari erantzuten dioten ekimenak eta ikastetxearen Hizkuntza Proiektuarekin koherentzia dutenak	Ekimeneko 4 p. Gehienez 16 p.		
Helburuari erantzuten dioten ekimenak eta ikasgelako jardun pedagogikoaren arteko lotura maila	Ekimeneko 4 p. Gehienez 16 p.	40	
Ekimen berritzaileak Hizkuntza Proiektuarekin lotuta eta gelako jardun pedagogikoarekin	Ekimeneko 2 p. Gehienez 8 p.		
Parte hartzen duten gelen kopurua ikastetxearen portzentajearekiko. Gehienez 25 puntu	0 ≥ %25 10 p. %26 ≥ %50 15 p. %51 ≥ %100 25 p.	25	% 40
Parte hartzen duten ikasleen kopurua ikastetxearen portzentajearekiko. Gehienez 25 puntu	0 ≥ %25 10 p. %26 ≥ %50 15 p. %51 ≥ %100 25 p.	25	
Saioaren jendeartekotzea	10 p. geh.		
Ikastetxeko ikasleen aurrean	2,5		
Ikastetxeko ikasleen eta gurasoen aurrean	5,0		
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen eta herritarren aurrean	7,5	10	
Ikastetxeko ikasleen, gurasoen, herritarren eta beste ikastetxeen aurrean	10		
OP3 – Ikastetxeen arteko gazte- eta haur-trukeak			
Inguruko beste euskal giro edo euskalki desberdineko ikastetxeetako ikasle eta familiekiko harremanak lortu eta sendotzeko trukeak egiten badira, kontuan hartuko da:		100	
Parte hartzeagatik	20 puntu	20	% 20
Gau-igarotze kopuru osoa ikastetxetik kanpo	0,15 p. gau bakoitzeko	45	
Trukekideak Nafarroakoak edo Iparraldekoak badira	35 puntu	35	

11. artikulua.– Ebazpena.

1. Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendariak dagokion Ebazpena egingo du, eta, gehienez, sei hilabeteko epean jakinaraziko du, deialdi hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Ebazpena “Herri-ikastetxeak – Deialdiak” atalean argitaratuko da, honako helbide elektronikoan:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/euskararte-2026>

3. Aipaturiko epean ebazpenik ematen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da. Eskatutako zuzkidurari buruzko berariazko ebazpena emateko betebeharra du organo eskudunak.

4. Ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez daiteke Hezkuntza sailburuaren aurrean, ebazpena argitaratu eta 10 eguneko epean.

12. artikulua.– Diru-zuzkiduraren ordainketa.

1. Aurretiazko izaera duen ordainketa bakarrean gauzatuko da ordainketa eta Ebazpena argitaratu ondoren jarriko da tramitean. Ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik hasi eta hamar (10) eguneko epean ikastetxe onuradunek zuzkidurari espresuki uko ez badiote egiten, zuzkidura onartutzat joko da.

2. Zuzkidura emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere zuzkiduraren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako zuzkidurarik edo laguntzarik eman badu, zuzkidurak emateko ebazpena alda daiteke. Horretarako, dagokion likidazio-ebazpena emango du Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendariak.

13. artikulua.– Diru-zuzkiduraren justifikazioa.

1. Zuzkidura jasotzen duten ikastetxeek, hura jasotzen dutenetik **2027ko ekainaren 15era bitartean** (azken egun hori barne) egin beharko dute burututako jardueraren justifikazioa, ondoko helbidean:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/euskararte-2026>

Bertan, urtean zehar ikastetxeetan euskararen erabilera bultzatzeko jardueren balorazio eta emaitzen galdeketa-memoriak eta justifikazioak aurkituko dituzte betegarri. Data hauek hasi aurretik edo bukatu eta gero ezin izango da justifikaziorik bete.

2. Jasotako zuzkiduraren justifikazioa garaiz eta zuzen amaitzen ez duenak, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko dizkio jasotako diru-kopuruak eta lege dagozkien interesak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak arautzen duen bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992-02-07ko EHAAn) zehaztutako prozeduraren arabera.

14. artikulua.– Betebeharretan hutsegitea.

1. Ikastetxeren batek laguntza jaso eta ekimena aurrera eraman ez, edota baldintzaren bat bete gabe uzten badu, zuzkidura itzuli egin beharko du.

2. Modu berean jokatu da Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 36. artikuluan jasotzen den baldintzaren bat betetzen ez bada.

3. Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta kudeaketa horretan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ere ezartzen dira. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

15. artikulua.– Datu Pertsonalen Babesa.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuak tratatuko ditu Barne Ebazpen honetako prozeduretan erabiltzen diren eskabide eta dokumentazioetako datu pertsonalak, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua, Laguntzak eta dirulaguntzak.

- Arduraduna: Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutua, Hezkuntza Saila
- Helburua: Laguntzak eta dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
 - Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko.
 - Tratamendua beharrezkoa da misio bat betetzeko, zeina egiten baita interes publikoaren izenean, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.
- Hartzaileak:
 - Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk.
- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).
- Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/171800-cap2-eu.shtml
- Araudia:
 - Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra. (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako
Institutuaren zuzendaria,
JOSUNE ZABALA ALBERDI